



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Prentsa oharra

“Desbardinak gara”

Batzar Nagusiak, nonbaiten be, leku aproposa dira eztabaidarako. “Athleee... clic! Bihotz zaletasun baten irudiak” izeneko erakusketea dala-ta, familia zurigorriko kide esanguratsu batzuk eztabaida berezia izan dabe Bizkaiko Legebatarrean. Goizean politikea izan bada eztabaidagai, arratsaldean kirolak hartu deutso txandea, gure Athletic mahai inguru bizi baten aztergai nagusi bihurturik: desbardinak ala zoro hutsak ete gara? Itau horregaz abiarazo dau eztabaidea Unai Larrea moderatzaileak, mahai inguruan mahaikide bikainak zituala, nor baino nor. Hor zan José Angel Iribar, Athleticegaz lehenengo partidua jokatu izanaren 50. urteurrena bete barri; Koikili Lertxundi jokalaria ohia izan dau lagun, baita Xabier Aierdi soziologoa eta Vicky Martínez Athletic zalea be. Bertaratu diranen artean izan dira, besteak beste, Ana Madariaga Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakaria eta Batzar Nagusietako erakusketa aretoan, zalego parebakoaren omenez, dagozan 54 argazkietako batzuen protagonistak.

Ordu bete baino gehiago irau dau mahai inguruak, aretoa bete-beterik egoala — San Mameseko harmailak zirudien joandako denporaldiko Europako partidu baten — mahaikideek azaldu egin dabe eurentzat zer dan Athletic. Hurreko iragan loriatsua talde zurigorriaren gaur egunekotasunagaz nahastu da. Itau nik behinenei erantzuteko astia egon da: Anakronismoa ete da Athleticen handitasun hori? Ilusino hutsean ete gagoz hondino? 'L'Equipe' egunkariak esan eban lez, kasu bakarra ete gara munduko futbol guztian? Hori holan bada, Taldearen onerako ala txarrerako ete da desbardinak izatea?

Horren inguruan, Iribar aritu zan lehenengo, eta esan eban: “Bai, ezbardinak gara. Ez dago gurearen moduan erantzuten dauen zalegorik, batez be une txarretan, taldea animatuz”. Ezbardinak izatearena onerako ala txarrerako izateari buruz, esan eban “Lezaman egiten dan lanean konfiantza osoa daukat eta ikusten dot atzetik jokalaria oso interesgarriak datozala”.

Tituloak dirala-ta, Iribarrek esan eban gauzak oso gatz dagozala talde bi dagozalako gainontzekoen aldean oso indartsu, baina krisialdia “aukerea” izan leitekeala. Enparauko taldeek “euren barrenera” begiratu beharko dabe, esan gurean ezin izango dabela hainbeste fitxaketa egin eta jakalariak harrobitik hartu beharko dabezala. “Horretan, abantaila handia daukagu”.

Xabier Ayerdik onartu egin ebazan hitzok, baina eztabaidan “txarraren papera” egitea suertatu jakon. Soziologoak esan eban harrobian egindako lana gure bertuterik handiena dala, baina datu “kezkarri” bat aitatu eban. Athletic demografiara lotuta dago. “Euskadik orain daukan jaiotze-taseagaz jarraitzen badau, 2040. urterako milioi eta erdi



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

biztanle izango gara, gaur egun milioi bi eta berrehun mila garenean. Non aukeratu gitxiago egongo da.” Hori dala-ta, gure filosofiaren inguruko eztabaida “lasaia” zabaldu beharra dagoala esan eban, hau da, Euskal Herritik kanpo jaiotako jokalaria fitxatzearen inguruan, “arazo demografikoa” daukagu-eta.

Galderen txandea hasi zanean Iribarrek izan eban lehenenego entrenatzaile profesionalak hartu eban hitza, Manuel de Nicolas jaunak (Iribar Baskoniako jokalaria zanean 1961. urtean), eta esan eutsan Aierdiri “federatutako jokalarien fitxak Iribarrek jolasten eban garaian egozanak baino hiru bider gehiago dirala gaur egun”, baina Aierdik esan eutsan “azken tituloak babyboom garraikoakaz” irabazi genduzala.

Bata bestearen ostean mahairatu dira itaunok, legebatar-itaunak balira lez. Giroan hara eta hona ebilzan udan gori-gori izan diran arazo batzuk. Javi Martínezen eta Fernando Llorenteren inguruan jazotakoa ikusirik, eztabaidea driblatuz ibili da grinarik sutsuenak eragiten dituen aztergai batzuen inguruan. Athleticek ezinbestean joaten laga beharko dauz jokalaririk onenak ala, bestela, fideltasun prozesuan aurrera egin beharko ete dau?

Vicky Martínez zaleak esan eban zeozerk huts egiten dauela Llorente halako jokalaria gazte batek Athletic iztea erabagiten dauenean bizitza erdia bertan emon ondoren. Hori dala-ta, “sentimendua” gehiago lantzeko eskatu eutsan klubari. Horren inguruan joan zan eztabaidearen zati handia. Danek jo eben tamalgarriztat jokalaria estrategikoak alde egitea, klubaren estrategia oinarritzen dalako jokalaria estrategikook “eustean” eta Athleticekoak izatea sentitzean. Koikilik esan eban lastimea zala Martinez joan izana: “Horrexek egiten deusku min. Kolpe gogorra da, oso onak diralako.”

Beroaldiak gora-behera, mahai ingurua San Mameseko partidu onetan jazoten dan moduan amaitu da, hau da jokaldirik onenak kopautxu baten aurrean komentatuz. Entzuleen artean izan ziran, besteak beste, Ainara Aretxabaleta (EAJ) eta Joseba Gezuraga (Bildu) batzarkideak, Alberto Uribe Echevarria, Silvia Muriel eta Angel Gorostidi Athleticeko zuzendaritzakoak, Juan María Aburto Lehendakariako Foru Diputatua, Sabin Anuzita Bilboko zinegotzia eta Roberto Laiseka txirrindulari ohia.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Nota de prensa

“Somos diferentes”

Bilbao, a 25 de septiembre de 2012

Las Juntas Generales es el lugar perfecto para la confrontación de ideas. En el marco de la exposición “Athleee...clie! Imágenes de un sentimiento”, destacados miembros de la familia rojiblanca cambiaron radicalmente la oratoria habitual del Parlamento vizcaíno. La discusión política de la mañana dio paso la tarde del día 25 a un coloquio deportivo con un hilo conductor: nuestro Athletic. “¿Somos distintos o estamos locos?”, así arrancó el debate Unai Larrea, el moderador de la mesa redonda, ante una alineación de gala. El mítico José Angel Iribar acudía a la cita después de que se cumpliesen 50 años de su debut como rojiblanco. Vino acompañado del ex-león Koikili Lertxundi, el sociólogo Xabier Aierdi y la fiel seguidora rojiblanca Vicky Martínez. “Entre los numerosos asistentes, acudieron la Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Madariaga, y alguno de los protagonistas de las 54 fotos que cuelgan de las paredes de la Sala de Exposiciones de las Juntas como homenaje a una afición única.

Durante más de una hora, en una sala abarrotada (parecía la grada de San Mames en un partido europeo de la pasada temporada), los asistentes explicaron su postura en relación a lo que significa el Athletic. El pasado cercano y glorioso se mezcló con la actualidad rojiblanca. Hubo tiempo para responder a las preguntas más trascendentales ¿Es la grandeza del Athletic un anacronismo? ¿Vivimos aún de una ilusión? ¿Somos, como dijo el diario L Equipe , casos únicos en el fútbol mundial? De ser así, ¿es bueno o malo para el futuro de la entidad ser diferentes?

Iribar fue el primero en recoger el guante. “Sí, somos diferentes. No hay ninguna afición que responda así, sobre todo en los momentos malos y animando al equipo” dijo. En cuanto si es una ventaja o no, el “chopo” expresó su confianza en lo que tenemos y en lo que viene. “Tenemos mucha confianza en lo que estamos haciendo en Lezama y veo que por detrás vienen jugadores muy interesantes”.

En cuanto a los títulos, Iribar manifestó que las cosas está muy complicadas porque hay dos equipos por encima de los demás. Sin embargo, la crisis puede ser una “oportunidad”. El resto de equipos tendrá que “mirarse el ombligo”, en alusión a que no podrán fichar tanto y tendrán que tirar de cantera. “Ahí les llevamos una gran ventaja”.

Estas reflexiones fueron aceptadas por Xabier Ayerdi, si bien le tocó hacer de “malo” en el debate. El sociólogo aseguró que el trabajo de cantera es nuestra gran virtud pero sacó a relucir un dato que resulta “preocupante”. La demografía va en contra del Athletic. Para el año 2040, si Euskadi sigue con esta tasa de natalidad, “seremos millón y medio



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZK A I A

de habitantes frente a los dos millones doscientos mil de ahora. Habrá menos donde elegir”. Por eso, argumentó que se debe abrir un debate “tranquilo” sobre nuestra filosofía, la que implica no fichar a jugadores de fuera del País Vasco, porque tenemos un “problema demográfico”.

En el turno de preguntas llegó la anécdota de la charla cuando el primer entrenador profesional de Iribar cuando era jugador del Baskonia en el año 1961, Manuel de Nicolás, tomó la palabra para rebatir las palabras de Ayerdi con otro dato. En estos momentos “tenemos el triple de fichas federativas” que cuando Iribar jugaba, a lo que Ayerdi respondió que es “cierto, pero los últimos títulos los ganamos con el babyboom”.

Una tras otra, se fueron introduciendo más cuestiones como si fueran interpelaciones. En el ambiente, estaban muy recientes los casos que han sacudido la actualidad rojiblanca durante el pasado verano. Visto lo acontecido con Javi Martínez y Fernando Llorente, el coloquio regateó por los puntos más sensibles, aquellos que despiertan pasiones. ¿Está el Athletic condenado de por vida a resignarse a perder a sus mejores jugadores o, por el contrario, debe incidir en ese proceso de fidelización?

Vicky Martínez dedujo que algo fallaba cuando un jugador tan joven como Llorente decide abandonar el club cuando lleva media vida en él. Por eso, animó al club a trabajar más el “sentimiento”. Como no podía ser de otra forma, este asunto centró buena parte del debate. Todos lamentaron la marcha de jugadores importantes, porque el club basa su estrategia en “retener” a los jugadores estratégicos y en el sentimiento de pertenencia. Koikili lamentó la salida de Martíne:”Es donde nos duele. Es un palo que se vayan porque son muy buenos.”

Discrepancias aparte, la charla-coloquio acabó como los buenos partidos en San Mames: comentando las mejores jugadas con un refrigerio. Entre los asistentes, se encontraban la apoderada Ainara Aretxabaleta(PNV) y Joseba Gezuraga (Bildu), los directivos del Athletic Alberto Uribe Echevarria, Silvia Muriel y Angel Gorostidi, el Diputado de Presidencia, Juan María Aburto, el concejal bilbaíno Sabin Anuzita y el exciclista Roberto Laiseka, entre otros.